

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Gasteizko Florida kaleko 13.zenbakia irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak tasazio bateratuaren bidez desjabetzeko proiektuari

Hau erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko Florida kaleko 13.zenbakia irisgarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak tasazio bateratuaren bidez desjabetzeko proiektuari.

2. Gasteizko Florida kaleko 13. zenbakiko jabeen komunitatea aitortzea desjabetze honen onuradun.

3. Delako proiektua informazio publikora ateratzea, hilabeteko eperako, ALHAOn, iragarki taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, interesaturik dagoen orok egokitzen dituen ohar eta erreklamazioak aurkezterik izan dezan.

4. Halaber, dossierrean ondasun edo eskubideen titular gisa agertzen direnei balioa zehazteko orriaren eta kalte-ordain orriaren berri hitzez hitz ematea, banan-banan, alegazioak aurkezterik izan dezaten, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatzen hasita — balioa zehazteko orri horretan jasotzen dira aplika daitezkeen balioeste irizpideak—, eta orobat jakinaraztea onuraduntzat jotako erakundeari ere.

5. Jakinaraztea hiru hilabetekoa dela desjabetze-dosierraren berariazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, hasteko erabaki honen datatik, nahiz eta epe hori eten egingo den baldin eta interesdunei akatsak zuzen ditzatela edo beharrezko diren agiriak edo beste judizio-elementu batzuk bidal ditzatela eskatu behar bazaie, interesdunari eskakizuna jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denboran edo, bete ezean, betetzeko emandako epean.

6. Florida kaleko 13.zenbakiko jabeen komunitateari jakinaraztea ezen, indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatuz —2019ko abenduaren 27ko ALHAO, 148.zk.—, desjabetzeko dossierraren hasierako onespenearekin batera, dagokion tasa —“jabetza nahitaez kentzeko dossierrak izapidetzea, hirugarren batek eskatuta edo onuraduna administrazio publikoa ez bada” — eskatuko dela, hau da, 459,85 euro (laurehun eta berrogeita hemeretzi euro eta laurogeita bost zentimo), eta kopuru hori desjabetze-dosierra behin betiko onetsi aurretik ordaindu beharko dela. Horretarako, Ogasun Sailak ordainketa-gutuna bidaliko die.

7. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkariaren bidez beharrezko diren agiri publiko nahiz pribatuak izenpetzeko.

Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - beheko solairua— egongo da ikusgai dosierra, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 7an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

Nahitaez okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda				
Nahitaezko desjabetzearen inguruko legedian eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean ezarriakoaren ildotik egin da zerrenda, zeinak Florida kaleko 13. zenbakia irisgarri egiteko okupatu beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak biltzen baititu, bai eta horien titularren izenak ere.				
Funtzia	Katastroko erreferentzia	Eragina		Errentariak Gainerako titularrak
		Oraingo azalera (metro karratuak)	Bolumena (metro kubikoak)	
01 Lomija	59600961000020004MP	6,65	0,9	Titularrak A.A.V.C. NAN 16238827E Ez dago jasota